


AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2026-04-17 / 895 ZENBAKIA / 22. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

"Aitatxo"

Adin txikikoen doluari buruzko dokumentala ikusgai izango da Saroben eta Basteron, Super Hren eskutik / 15



"Orratz-begia",
erbestera bidea
hartu behar izan
zuten haurren
erakusketa / 14

1936ko kolpe
militarrean erail
zituzten andoaindarrak
omenduko dituzte
larunbat honetan / 6

Andoaingo Ibilbide
Neurtua: hiru aukera
egokitu ditu
Euskaldunak igande
honetarako / 13



Kopako finalaren asteburua

Real Sociedad eta Atletico de Madriden arteko finala berotuz doa, egunez egun / 2-4

AIURRI

FINALAURREKOAK

APIRILAK 18
LARUNBATA · 16:30
GALARRETA
JAI ALAI



berria

ERREMONTA
TXAPELKETEA 2026

1. PARTIDA (IKUSKIZUN PARTIDA)
GOIKOETXEA V · UGARTE II VS
SUSPERREGI · AIESTARAN VI

2. PARTIDA (BERRIA TXAPELKETAREN FINALAURREKOAK)
EZKURRA II · GOIKOETXEA VI VS
MARTIXPE · BARRENETXEA IV

2. PARTIDA (BERRIA TXAPELKETAREN FINALAURREKOAK)
ARLUZIAGA · AZPIROZ VS
SEGUROLA · ALDABEI

ODIA MENDI
BIZI ERREMONTA

ERREMONTA
LANTZEN ERREMONTA

EUSKADI
ERREMONTA

Orona

HAIN
OSKURTZA

55 sukia

VOLEVO
Rubi Sutea

EGURILAN

AIURRI



Reala, aurreko asteburuan jokaturako partidaren. LIGA

Asteburuko hitzordu nagusia

Gaueko bederatzietan abiatuko da partida, eta ordura arte askotariko sentimenduak azaleraziko dira zaletuen artean. Nagusia ilusioa da, sari potoloa eskuratzeko urrats bakarra falta baita. Gertu izan arren, aurkari gogorra gainditu beharra dago

Erredakzioa URNIETA

Futbola arrotza zaionari ere iritsi zaio notizia eta larunbata bitarte saihestezina izango da Kopako finala albo batean uztea. Geroz eta bandera gehiago ikusten dira leiho, balkoi eta erakuslehoetan. Guztion, edo gehienon, ahotan izango da Realaren partaidetza kopako finalean. Gauzak horrela, askotariko hitzordu gehiago iragarrita dauden arren, Kopako finalaren asteburua izango dela argi dago.

Aurrez aurre ezaugarri ezberdineko bi talde lehiatuko dira. Batetik, Real. Denboraldi berean txanponaren bi aldeak erakutsi ditu. Jokorik eta emaitzarik gabe ekin zion denboraldiari eta, Gabonaz geroztik eta entrenatzailearen aldaketa egin ondoren, goranzko joerari ekin dio. Finalaurrekoetan, Athleticen aurka, erakustaldia eman zuen.

Bi taldeen ibilbidea Kopan

Kopako finalera iristerako hainbat aurkari utzi behar da bidean.

Atletico de Madrid

1. kanporaketa (1/32 finala): Atlético Baleares 2-3 ATM.
1/16 finala: Deportivo La Coruña 0-1 ATM.
Final-laurdenak: Real Betis 0-5 ATM.
Finalaurrekoak (bi partida): ATM 4-3 FC Barcelona.

Real Sociedad

1. kanporaketa: Negreira 0-3 Real.
2. kanporaketa: Reus 0-2 Real.
1/32 finala: Eldense 1-2 Real.
1/16 finala: Real 2-2 Osasuna.
Final-laurdenak: Alaves 2-3 Real.
Finalaurrekoak (bi partida): Real 2-0 Athletic Club.

Aurrez aurre Atletico de Madrid ariko da. Ligako eta Championseko talde sendoetako bat da, maila handiko jokalariek osaturikoa. Urte asko daramate goi mailan lehiatuz eta Real-

rentzat ez da aurkari erraza izango. Gipuzkoarrek, ordea, Kopako finala jokatzen eta irabazten eskarmentua badute. Gauerdi aldera, kopa nork altxako duen jakingo da.



GAKOAK

PABLO DE TORRES URNIETA

Kopako finalaren gakoak

UKIEZINAK

- Atletico de Madrid da faboritua.
- Bi taldeek, hurrenez hurren, 16. eta 17. postuetan sailkatu diren taldeen aurka porrot egin dute aste honetan.
- Realean giro ona dago aldagelan.
- Bi entrenatzaileak oso biziak dira.
- Diego Simeonek intentsitatea eta motibazioa jartzen dio "guztiari", pentsamolde irabazlea eta partidaz partidako teoria jarraituz.
- Pellegrino Matarazzok, matematikari ona den aldetik, plantillaren errendimendua maximizatzen du eta, jokalariei dagokionez, beste batzuek ikusten ez duten alderdi onak ikusteko eta ateratzeko gai da.

SISTEMAK

Atletico de Madrid

- Ziurrenik 4-4-2koarekin irtengo da, nahiz eta Simeoneri gehien gustatzen zaizkion sistemak 3-5-2 edo 5-3-2 diren, bi alboko errailekin. Baina ez ditu aurkitzen zelaian marrazki horretara etengabe egokitzen diren jokariak.
- Beti ondo antolatuta egoteari lehentasuna ematen dion taldea da, baloiaren jabetzaren kaltetan. Baloia berreskuratzeko gaitasun handia (partidaren une batzuetan agresibitate apur batekin) eta espazio libreerarako trantsizio azkarrak, ahal dela bertikalak.

Reala

- Ziurrenik 4-2-3-1 aterako da, baloia ondo menderatuta, presio azkarra galduta, batez ere kontrako zelaian. Jokoa triangulazioetan oinarritzen da, behetik jolastuz eta hirugarren gizona bilatuz. Baloia gehiegi erabiltzen du, batzuetan bertikaltasunaren erdigunea alferrik galduz.
- Kontu handiz ibili behar da bi pibotekin eta jokalar horien baloi-galerak saihestu behar dira.

GAKOAK

- Ate aurrean asmatzea izango da partidako gakoetako bat bi taldeentzat.
- Partida osoan hamaika jokalar zelaian mantentzea.

PRONOSTIKOA

- Realaren garaipena, sufrituta, alde txikiagatik.



Partida osoan hamaika jokalar zelaian mantentzea gakoetako izango da. LIGA



Haur jolasak eta pantaila erraldoia, Andoainen

Real Sociedad eta Atletico de Madrid taldeen arteko finala jokatu da larunbatean. Andoingo Udalak ekitaldi-sorta antolatu du, arratsaldean hasita, Salkinekin eta Gazte Lokala nahiz Ludotekarekin elkarlanean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Eguraldia lagun izanez gero, Kopako finala lagunartean eta kalean gozatzeko aukera aparta izango da. Aurrikusi daiteke Realaren aldeko giroa Gipuzkoako udalerrri guztietan. Eta haietako gehienetan ekitaldiak antolatuko dira. Andoingo Udalak, Salkin merkatarien elkar-tearekin eta Ludoteka nahiz Gazte Lokalarekin batera, egitaraua prestatu du larunbat honetarako:

17:00 Zumea plaza: Haur jolasak, aurpegi-margoketa eta txapak egiteko tailerra.

21:00 Goikoplaza: Pantaila erraldoia jarriko dute.



Goikoplazan pantaila erraldoia jarriko dute, larunbat honetan. AIURRI

Udalak festarako eta arduraz jokatzeko deia luzatu du: "partida eta aurreko nahiz ondorengo orduak ospakizun giroan

bizitzeko gonbita luzatu diegu herrikideei. Ahaztu gabe, kaleak txukun eta garbi izatea denendura dela gogoraraziz".



Realaren alde, nonahi

Realaren aldeko keinuak agerikoak dira Sevillako finalaren hitzordua hurbildu ahala. Andoainen eta Urnietan, esaterako, balkoi, erakusleiho eta hainbat tokian aurki daitezke Realaren aldeko banderak. Garai ezberdinetakoak, baina guztiak txuri-urdiñak, helburu amankomunarekin: Kopako finala irabazteko animoak ematea.



Realaren aldeko ekimenak ageri dira bi udalerrietan. AIURRI



Arruti gozotegiko tarta txuri-urdiña, Aiurriko porraren sarietakoa. AIURRI

Aiurriren porran parte hartzeko epea amaitzean da

Saria bikoitza da: Arruti gozotegiko tarta txuri-urdiña eta Ormendi Kirolak dendan ikusgai dagoen Realaren baloia

Xabier Lasa ANDOAIN

Kopako finalaren emaitzaren kontura porra antolatu du Aiurri. Galdera bikoitza da: Nork irabaziko du? Eta zein izango da emaitza? Lehiaketa irekia da; beraz, edonork parte har dezake. Erantzun guztiak bistaratuko dira izen-abizenekin. Eskatzen diren gainontzeko datuak ez dira argitaratuko; irabazlearekin harremanetan jartzeko erabiliko dira. Aiurriren ekimenak arrakasta handia izan du, albistea webgunean argitara eman eta ordu gutxira dozenaka izen-emate izan zirelako. Partaide gehienak Kopa Realarentzat dela adierazten ari dira eta gehien errepikatzen den emaitza 2-1ekoa da. Baina gerta daiteke ere partida berdinketarekin amaitzea. Ez dira asko porran berdinketa jarri dutenak. Baina, nork daki, finalak, ohikoan, kontrol handi-koak izaten baitira.

Ostiral eguerdian amaituko da izena emateko epea

Parte hartzeko epea ostiralean amaituko da, eguerdiko 13:00tan. Partidaren bezperan, beraz. Porra asmatzen dutenen artean pertsona batek sari bikoitza lortuko du:

- Arruti gozotegiak egindako tarta txuri-urdiña.
- Ormendi Kirolak dendan ikusgai dagoen Realaren baloia.



Ormendi Kirolak-en ikusgai dagoen Realaren baloia ere sarian doa. AIURRI

Biak ala biak erakusleihoan ikusgai daude, porran parte hartzeko afitzarekin batera.

Parte hartzeko modua, Aiurri.eus gunean sartuta

Esan bezala, partaidetza irekia da: gazte zein heldu, futbolzale izan ala ez, porra egitea libre da. Aiurri.eus webgunean sartu eta gaikaldean ageri den "Porra: Kopako finala" estekan klik eginda aurki daiteke porra egiteko sarbidea. Dagoeneko 300 lagunek eman dute izena. Zorte on, irakurle!

Familiatik datorkio zaletasuna

PATXI MUÑOZ ANDOAINGO COLCHONERO-A

Larunbat honetan, Andoain aldean, gutxiengo bat izango da Atletico de Madrid taldearen alde animatzen ariko dena. Familiatik datorkion zaletasuna du andoaindarrak

Lide Ruiz Telleria ANDOAIN

Aiurrik porra bat jarri du martxan. Zuri egingo dizugu galdera: zein da aurreikusten duzun emaitza?

1-2, Atletico de Madriden alde. Ez da gol askorik izango. Oiar-tzabal handiak sartuko du bat, eta beste biak Julian Alvarezek eta Giuliano Simeonek.

Madridarren aldeko bakarrenetako izango zara Andoainean. Nondik datorkizu zaletasun hori?

Badaude, baina ezkutatu egiten dira. Familiatik datorkit, hasieran, aitona-amonak eta gurasoak zaletu ziren; ondoren, anaia eta biok; eta, orain, noski, semea. **Iraganean gauza tamalgarriak gertatu ziren Realaren eta Atletico de Madriden artean. Zabaletaren kasua da esanguratsuena. Sevillan liskarra sor daitezkeela uste duzu?**

Espero dut hala ez izatea. Atletico de Madrideko zaletu gisa, izugarrizko mina sentitu nuen, 1998ko hartan. Aitor Zabaletaren hilketak min handia eman zidan. Hala ere, bidezkoa al da Atletico-ko guztiok hilketa haren erantzule gisa hartzea? Gehien-gehienak jende gaizto eta biolento horien aurkakoak gara. Afizioaren % 95 taldea babestera doa da zelaira. Horrexegatik azpimarratu nahi dut "colchonero" guztiak ez garela halakoak.

Elkarrizketa baliatu nahi dut besarkada estu bat bidaltzeko Peña Izarreko errealezaleei. Andoaindar gisa asko sentitzen dut auzi horretan sufritu zutena.

Jakitun naiz errealezale askok ez dutela barkatzen, ezta ahazten ere, baina zergatik ezin naiz Atletico Madriden elastikoarekin Anoetara partida bat ikustera joan? Zergatik botatzen dizkirate txistuak eta aluminiozko bolak? Zergatik bota zizkiguten petardoak Anoetan Realari irabazi genionean? Petardo horietako baten ondorioz nire semea ia gorra utzi zuten.

Aitor Zabaletaren kasua lotsagarria izan zen. Frente Atletico-coko jendea izan zen, bai. Jende hori gaiztoa da baina, bestalde, talde guztietan daude horrelako elementuak.

Poztuko zinateke Realak irabaziko balu?

Nik Atletico de Madridek irabaztea nahi dut. 1987an, Zaragozako finalean, Realak penaltietan irabazi zigun, Arconada handia atezain zela. Aurten orduko arantza hura atera nahi dugu: erregearen kopa irabazi nahi dugu.

Non ikusiko duzu finala, larunbat ganean?

Etxean, edo bestela auzuneko Itsaso tabernan. Esaten didate koldarra izango naizela eta ez dudala gainerako bezeroen artean ikusiko.

Ingurukoek zer esaten dizute finalari buruz? Eta zuk zer erantzuten diezu?

Ezagutzen naute, aspalditik dakite Atletico de Madridekoa naizela. Elkar zirikatzen dugu, normala den bezala. Andoaingo jendeak ezagutzen nau, batez ere, nire adin ingurukoek. Baina ez naiz bakarria eta badira gazte batzuk Atletico de Madridekoak direnak. Noizean behin

elastikoarekin entrenatzera joaten dira Ubitartera.

Zure taldetik zein jokalaria nabarmenduko zenuke? Eta zure taldekoek norengan jarri behar dute arreta berezia?

Lehenik, gure taldeko Koke nabarmenduko nuke. Zelai erdiko erregea da. Bestetik, Julian Alvarez aurrelaria ere oso ondo ari da. Golegile petoa da, nahiz eta, azkenaldian, ez den gol asko sartzen ari. Horiez gain, Giuliano Simeoneren jokatzeko gaitasuna azpimarratuko nuke, izugarria da.

Talde sendoa da Atletico de Madrid, Ligan eta Championsen onenen artean egonkortuta. Nolako denboraldia egiten ari dira?

Batetik hamarrera, zortzi bat jarriko diet. Championsen Camp Nou lortu berri dugun garai-penak finalera heltzeko aukera handiagoa eman digu. Bada garaia 'Cholo' Simeonek final bat irabaz dezan, taldean 14 denboraldi egin ondoren. Oso zaila izango da, maila handiko taldeak lehiatzen ari baitira. Esate baterako, Arsenal eta Municheko Bayern. Baina, hala ere, saiaturko gara.

Eta, bestalde, Real nola ikusten duzu?



Colchoneroa, andoaindarraren artean: Patxi Muñoz. AIURRI

Bikain ikusten dut, oso ondo jokatzeko ari dira. Gorabeherak dituzte, talde guztiek bezala. Oso entrenatzaile ona dute, Matarazzo oso lan ona egiten ari da. Lesioek ere pisua izan dute, adibidez, Take Kuboren lesioak eragin handia izan du taldean. Hala ere, oso jokalaria onak dituzte. Oiarzabal eta aurreko jokalariei esker, Real Ligan nabarmenduko dela uste dut. Nire ustez, 5. postua eskuratuko du. Ez diguzue 4. postua kenduko.

Finala partida bakarrera da. Irabazteko zein portzentaje ematen diozu talde bakoitzari?

"1987KO FINALEAN REALAK IRABAZI ZIGUN. AURTEN ARANTZA HURA ATERA NAHI DUGU"

Atletico de Madril %85eko probabilitatea ematen diot irabazteko, eta Realari %15a.

Andoainean eta inguruetan zenbat zarete Atletico de Madridekoak?

Hamabost bat ezagutzen ditut. Zaletu horien seme-alabak ez dakit colchoneroak izango diren, baina dozenatik gora gara.

Zure taldeak irabaziko balu nola ospatuko zenuke?

Bere taldea irabazten duen edozein zaletuk ospatuko lukeen bezala. Berdin-berdin. Daukadan adinarekin, ez naiz mozkortuko, baina garaipena behar bezala ospatuko dut. Balkoira irten eta "toma!" oihukatuko dut.

"ANDOAINGO JENDEAK EZAGUTZEN NAU. ELKAR ZIRIKATZEN DUGU, NORMALA DENEZ"



Urnieta
udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Ibilgailu elektrikoaren kargarako bi gune egokitu dituzte

Aldi berean lau ibilgailu kargatzeko aukera dago Andoainen, Agustin Leitza eta Aiztondo kaleetan

Erredakzioa ANDOAIN

Auto elektrikoak kargatzeko bi gune jarri ditu Andoaingo Udalak, berriki. Bat Agustin Leitza kalean dago, Goikoplaza inguruetan. Eta, bestea, Karrika auzoan, Aiztondo kalearen pa-

reko aparkalekuan (CAR Rectificados enpresaren ondoan). Karga azkarreko bi kargagailu ditu gune bakoitzak; 44 kWko potentzia dute.

Udalak ohartarazi duenez, erabilera-sistema errazekoak

dira lauak: “kargatzen hasteko, mahuka ibilgailuari konektatu behar zaio, ordainketa kreditu-edo zordunketa-txartel bidez egin behar da erabilgarri dagoen STaren bidez, eta, ordainketa egin ondoren, karga automatikoki hasten da. Kargaren prezioa une bakoitzean energiaren kostuaren arabera da”. Gune bakoitzean jarraibideak ageri dira, eta baita ere laguntzeko telefonoak eta Udaltzaingorekin kontaktuak, edozein gorabehera edo matxurari erantzuteko.



Agustin Leitza kaleko kargarako gunea. AIURRI

Amenabar auziko dirua maiatzean itzuliko dute

Andoaingo Zabalgunea-Amenabar auziari dagokion dirua ordaindu zutenei maiatzaren hasieran egingo dietela itzulketa adierazi du, ohar bidez, Udalak. Prozedura udalaren gain geratu da, beraz, epaitegiak agindutakoa betez

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udalak martxoaren amaieran agindutakoa betetzen duela adierazi du, ohar bidez: “prozedura modu ordenatuan eta gardenean ari da garatzen. Helburua argia da: ordaindu zuten pertsonen dirua itzultzea bere osotasunean, ebazpen judizialak ezarritako irizpideei jarraituz”.

Prozedura honakoa izango dela iragarri du Udalak:

- Titular bakarra dagoenean: Ondasun Higiezin Zergaren (OHZ) ordainagiria helbideratuta dutenen kasuan, Udalak dagoeneko badu kontu-korron-

te zerbakia, eta, beraz, automatikoki itzuliko da.

- Gainerako kasuetan: Jabe bat baino gehiago dagoenean edo OHZ helbideratuta ez dagoenean, beharrezkoa izango da itzulketa egiteko kontu-korronte zerbakia ematea.

Datuen kontrastea eta itzulketa

Andoaingo Udalak informazioa jaso eta datuak eguneratzeari ekin dio aste honetan. Lan horretan datorren apirilaren 30a bitarte ariko direla aurreikusitako dute: “hilabetearen amaiera arte jasotako dokumentazioarekin, itzulketen espedienteak presta-

tu eta egiaztatuko ditu Udalak eta, segidan, maiatzaren hasieran lehen ordainketak egingo dira”.

Arreta zerbitzua, aurrez aurre eta telematikoki

- Modu digitalean: Egoitza Elektronikoa, Andoain.eus webgunean.
- Aurrez aurre: Atarian Herri-tarren Arretarako Zerbitzuan (Andoaingo Udaletxeko beheko solairuan). Ordutegia: 10:00-13:00, astelehene ostiralera; 10:00-13:00 / 17:00-19:00 apirilaren 14an, 16an, 21ean, 23an eta 28an.

Negozioaren jarraipena eta eskualdatzea, aztergai

Planifikazioan sakontzeko tailerra antolatu du Beterri Buruntza Mankomunitateak Andoainen

Erredakzioa ANDOAIN

Erretiroa gertu duten eta beren negozioa ixtea nahi ez duten establezimenduen jabeek aukera izango dute beraien negozioaren jarraipena eta eskualdatzea modu planifikatuan prestatzeko. Apirilaren 21ean eta 28an, eta maiatzaren 5ean, Andoaingo Urigain Etxean, doako hiru formakuntza-saio antolatu dira gaitasun inguruan sakontzeko.

Datak

- Apirilak 21, asteartea: ondorengotza programaren aurkezpena. 13:15-14:15.
- Apirilak 28, asteartea: erretiroari buruz jakin beharrekoak. 13:15-15:15.
- Maiatzak 5, asteartea: errelebo planifikatzen. 13:15-15:15.

eta beharretara egokituta. Hitzordua eskatzeko enpresa@beterriburuntza.eus helbidera idatzi daiteke, edo 943 244 523 telefonora deitu.

Andoaingo Udaletik zein Mankomunitateetik deialdia egin diete bertako merkatariari gerturatzeko; izan ere, talde txiki eta erosoetan landuko dira negozio bat eskualdatzeko jakin beharreko gakoak, eta espazio egokia da bakoitzaren behar zein kezka partekatatu ez ezik, erantzuna ematen hasteko.

Ondorengotza egitasmoa “zuk duzu giltza, aldatu eskuz” mezua bitartez merkatariari ahaldundu nahi dira, elkarrekin herriguneak zein industrialdeak bizirik mantentzeko.

Saio hauetan izena emateko, ondorengo formularioa bete behar da: <https://forms.gle/kvuRAuEpBqNJQw1f6>

Datozen hilabeteetan, lurraldeko gainerako udalerrietan antolatuko dira aurrez-aurreko saio hauek berriro adituen eskutik, herri bakoitzeko merkatariari bertaratzea errazteko. Hurrengo bi saioen kokalekuari buruzko informazio gehiago datozen asteetan partekatuko da.

Formakuntzez gain, Beterri-Buruntza Mankomunitateak doako aholkularitza pertsonalizatua eskaintzen du etengabe, pertsona bakoitzaren erritmorara



Saio praktikoa. BETERRI BURUNTZA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 55 eurokoa da. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Lide Ruiz Telleria.

Maketzaileak:

Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:

Garbiñe Ugartemendia.

idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea:

Fer Itazu.

publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak:

Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, Jeray Gonzalez (Urnietan).

Diseinua:

Goiena / TOKIKOM.

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.

Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua:

SS-1078/04.

ISSN:

1698-4870.

Tirada:

4.000 ale.

Inprimategia:

Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOAINGO UDALA



Umiesteko UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Hikuntza Berdintasunerako Zuzendaritza



EUSKO JAURLARITZA GOBERNUA

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAIALA

BABESLEAK: Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.





Ekitaldi jendetsuak egin dituzte, aurtun, Gazteizen. Efemeridea borobila baita: 50 urte igaro dira sarraskiaz geroztik. AIURRI

Memoriarekin hitzordua

1936ko kolpe militarraz geroztik Andoainen erail eta zapaldu zituzten herritarren aldeko omenaldia antolatu du Oroituz elkarteak. Larunbat eguerdian izango da Miranda Pasealekuan. Gasteizko Martxoak 3 elkarteko kideak dira aurtengo gonbidatuak

Erredakzioa ANDOAIN

Hitzordua eguerdiko 12:00tan hasiko da, Maizorri txalaparta eskolako kideen saioarekin. Punttuka bertso eskolako kideen esku-hartzearen eta Urkiko dantzari eta txistulariaren ohorezko dantzaren ondoren, lore-eskaintza egingo dute faxismoak herrian eraildako eta desagerarazitako 26 herritarren omenez. Lore-eskaintza Gotzon Etxeberria artistaren "Goiztirian, arimaren garrasia" eskulturaren aurrean egingo dute. Segidan, Gasteizko Martxoak 3 eta Andoaingo Oroituz elkarteetako kideek hartuko dute hitza.

Amaieran, Andoaingo abeslariak eta musikariek osatutako Banda Errepublikanoaren txanda helduko da. Abesti antifrankestak zabalduko dituzte Alfaro plazan, eta bereziki, Lluís Llach abeslariak Gasteizko sarraskia

inspirazio-iturri izanda konposatu zuen "Campanades a morts" abestia ekarriko dute gogora. Andoaingo biktimen aldeko ekitaldian emanaldia egiteko espreski osatzen den taldea da Banda Errepublikanoa, eta Joxe Mari Oiarzabalek zuzentzen du.

Bazkaria, Kotoi elkartean

Frankismoaren biktimak oroitzeko egunari jarraipena emateko, Kotoi elkartean bazkaria antolatu du Banda Errepublikanoak.

Gasteizko sarraskia, gogoan

Gasteizko elkarteko kideak izango dira gonbidatu bereziak aurtengo ekitaldian; modu horretanaitortza egin nahi diete 50 urtez tinkotasunez baitaramate egia eta justizia aldarrikatzen. Ezaguna denez, garai hartako

poliziak Arabako hiriburuan hil zituen bost langileak eta zauritu zituen ehundik gora herritar. Pedro Maria Martínez Ocio, Francisco Aznar Clemente, Romualdo Barroso Chaparro, Jose Castillo Garcia, eta, Bienvenido Pereda Moral izan ziren eraildako langileak. Horiez gain, Gasteizko hilketengatik protesta egiten ari zirela hurrengo egunetan hil zituzten beste hiru lagun gehiago: Juan Gabriel Rodrigo Knafo, Tarragonan; Mario Marotta, Erroman; eta, Vicente Anton Ferrero, Basaurin.

OROITUZEN EKITALDIA EGUERDIKO 12:00TAN HASIKO DA ETXEBERRIETAKO ALFARO PARKEAN

POSTONTZIA

IKATZ-GANE BETERRI-BURUNTZA

Ikatz-Gane proiektuaren aurkako helegitea

Eskerrik asko Ikatz-Gane proiektuaren aurkako helegitea sinatu eta herri mugimenduari babes adierazi diozuen denoi! Erantzun ederra ari gara ematen: Hernaniko azokan ekimenak izan zuen harrera izugarria izan zen, bata bestearen atzetik, ehunka herritar etorri ziren karparen ingurura beren alea jartzeko gogotsu; herriz herriko sinadura puntuetatik maiz deitu gaituzue orri gehiago eramateko eskatuz. Dagoeneko 1.815 sinadura ditugu, ez dira gutxi! Baina ez dugu konformatu nahi. 2.500 helegite aurkeztera heldu nahi dugu, azken txanpako olatuari eutsi nahi diogu! Apirilaren 24ra arte dago helegiteak aurkezteko epea. Beraz, apirilaren 23an Hernaniko azokan egongo gara eta edozein egun eta ordutan aurkeztu dezakezue dokumentua umbizirik@gmail.com helbidean edo honakoetan: Hernani, Garin, Kide, Makoki ilepaindegia, Sagastiberri tabakoak eta Herrilur; Urnieta: Matxo.

Zer eraiki daiteke txikizio batetik? Balio handiko natureremuak defendatu!



TOPA

Osasun publikoaren alde

Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek osasun publikoaren alde egingo diren manifestazioan parte hartzeko deia egiten diete herritarrei. Horietako bat Donostian izango da, larunbat honetan. Manifestazioa 17:00etan abiatuko da Bulebarretik. Besteak beste, sanitate publikoaren hondatzearen erantzukizun politikoak eskatuko dituzte.

HERIOTZ-OHARRA

AGURRA



Ixak Carrasco Carvajal
-Gugan bego-

Barkasiko zotagarrak, gure laguna, alai, borrokaria, ikusi, ederra, handi eta berriz berriz, irribarria, berezia, eskuztara, euzko marra, oki eta gullabur ibertaria.

Andoain, 2026ko martxoaren 29an



Arreta zikloko zenbait ikasle, Debora Herrero, Uxue Iruretagoiena eta Jon Otaegi irakasleekin, Flor Lopez eta Peio Jauregi Bertxin elkarteko kideekin, eta, joskintza tailerra gidatzen ari diren Ana Mari Usandizaga, Juanita Ikutza, Teodora Herrera eta Mari Lucasekin. AIURRI

Gizartean txertatzen diren ikasketak

Gizartearen errealitate konplexuan oso txertatuta dauden bi ikasketa eskaintzen ditu Leizaran Institutuak, Lanbide Heziketaren arloan. Zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen jarduteko teknikariak prestatzen dituzte bertan

Xabier Lasa ANDOAIN

Gizarteratzea (goi mailako zikloa, A eta D ereduak) eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonentzako Arreta (erdi mailako zikloa, D ereduak) dira ikasketa horiek. Bi ikasketa horiek xede hartuta, Ate Irekiak jardunaldia egingo dute Institutuan, apirilaren 22an, asteazkenarekin, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Interesa eduki dezaketen herritarri gonbidapena luzatu diete Debora Herrero Leizaran Institutuko Arreta Zikloko Mintegi buruak, “etor daitezela inongo lotsarik gabe, informazio orokorra emango diegu, zikloen berri, beren

edukiak, gizartean eta gizarte-ko eragileekin elkarlanean egiten ditugun praktikak, irteera profesionalak...”.

Gizarteratze zikloa

“Gizartean zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboetako kideekin jarduteko prestakuntza jasotzen dute bi ikasturteko iraupena duen ziklo horretan”, Nerea Bilbao irakasleak adierazi duenez. “20 urteko ibilbidea egin du Leizaran Institutuan zikloak, eta arrakasta handia du gazteen artean; bete egiten dira gelak” gaineratu du. Ikasle gehienak erdi mailako zikloak eginda datoz; batxilergotik ere

etorri ohi dira, unibertsitatera joan beharrean Lanbide Heziketako zikloan murgiltzea erabaki dutelako”.

Jada praktiketan dabilta gizarteratze zikloko bigarren mailako ikasleak. Lehen mailakoak, berriz, maiatzean ekingo diete praktikei. Ezaugarri eta premia anitzak dituzten erakunde eta lekuetan murgilduko dira: ikastetxeak, adin txikikoen harreraketak, Caritas, Gautena, Kirol Egokituak, Drogamenpekotasuna jorrazten dituzten zentroak, Sorabillako Harrera Etxea...

Maddi Iza eta Miriam Lasel dira ikasle horietako bi. Errenteriako ikastetxe batean adin

txikiekin ariko da Iza, eta Trintxerpen harrera-etxe batean Lasel. “Haur Hezkuntza gogoko dugu, eta iruditzen zaigu leku egokiak izan litekeela Institutuan ikasitakoa garatzeko” adierazi du Izak. Ilusioz beterik daude une honetan, praktiken lehen eguna noiz iritsiko. Lasel aitortu du zenbait ezaugarri komeni direla edukitzea Gizarteratze zikloaren aldeko apustua egiteko, “zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen enpatia eta sentiberatasuna, gizarte-trebetasunak, baliabide pertsonalak behar bereziak dituzten pertsonen errealitateei aurre egiteko...”.

Arreta zikloa

Mendekotasun egoeran dauden pertsonen jarduteko prestatzen dira ikasleak Arreta (erdi mailako zikloa) zikloan, Leizaran Institutuak, D ereduak. Lanke-horretan, Leizaran Institutuan azken urtetan garatzen ari diren esperientzia nabarmendu nahi izan du Debora Herrero irakasleak. “Andoaingo herriarekin lankidetzan zenbait ekimen ari gara burutzen, oso modu aberasgarrian; Lanbide Heziketan nahiko aitzindaritzat jo daitezke horiek. Udalarekin eta Bertxin eta Santa Krutz jubilatua eta pentsiodunen elkarrekin harremanak estutu ditugu, eta horri esker, azken urtetan Ibili Andoain ekimenean modu aktiboan parte hartzen dute ikas-

leek asteazkenero, Eguneko Zentroko aitona-amonekin ariketa fisiko eta mentalak egiten dituzte”.

Gainera, aurtengo ikasturtean, beste bi proiektu berri jarri dituela abian, Herrero nabarmendu du: “hirugarren adinekoekin “mugimendu eta osasuna” eta “osasun mentala” izeneko bi tailer batetik, eta bestetik, joskintza tailerra. Ikasleak Ambrosia Olabide eraikinera joaten dira lehenbiziko bi tailerak gidatzeko, eta hirugarren-egoa egiteko, berriz, adineko jostunak etortzen dira Institutura”.

Tailer horiek ikasleei eragiten dizkien onura praktikoak azpimarratu ditu Herrero, “ikasleek, etorkizuneko teknikari gisa, zainduen profesionaltasunez eta duintasunez jokatzeko jakin beharko dute. Tailer horien bitartez, adineko pertsonen eduki beharreko harremanetarako gaitasunak garatzen zizkie, eta gainera, etxe bateko martxan nahitaezkoak diren jardunetan (jostunean, garbiketean, sukaldetan...) trebatzen ari dira”.

Urratutako bideak oso balorazio pizgarria eragiten diola Institutuari aitortu du Herrero. “Ezin bestela izan. Izan ere, belaunaldi desberdinen arteko harremanak sustatzen dira, eta gainera, gure ikasleak etorkizunean arreta eta zaintzaren arloetako teknikari formatuak izango direla bermatzen ari gara”.

Belaunaldien arteko ikaskuntza

Tailer horien gauzatzearekin, belaunaldien arteko ikaskuntza sustatzen ari direla nabarmendu du Peio Jauregi Bertxin Jubilatua eta Pentsiodunen elkarteko kideak. “Adineko pertsonak isolatuak bizi dira gizartetik hein batean, eta gu bezalako elkarrekin egitasmoa izaten da gizarte horretan txertatuta bizitzen jarrai dezaten. Argi daukagu bizitzak eskarmentu eta jakintza handia eman dizkiela eta oraindik ere asko daukatela erakusteko hurrengo belaunaldiei. Alde horretatik, eredu-garriak iruditzen zaizkigu Leizaran Institutuak bere ikasleekin dinamizatzen dituen tailerrak. Belaunaldien arteko harremanak bultzatzen dira, eta elkarrekin ikaskuntzan jardutea errazten du. Tailerrak hurrengo ikasturtean ere errepika daitezela saiatuko gara”.



Argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus webgunean, argazki-bildumen atalean. AIURRI

Joxean Huiziren omenezko txapelketa

Andoain, seigarren urtez, alebin mailako futbolarien bilgune bilakatu zen. Egunak aurrera joan ahala eguraldia gaiztotuz joan zen baina hori ez zen futbolariarentzat oztopo izan. Neska-mutilek dena eman zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Euskalduna futbol taldeak egun osoko txapelketa antolatu zuen, klubeko lehendakari izandako Joxan Huiziren omenez. Hitzordu horiek taldeen arteko laguntasuna sustatzeko baliagarriak

dira eta horren adierazle nagusia da, bereziki, eguerdian antolatzen duten bazkari jendetsua. Bada lehia, baina bada ere futbolaren inguruan antolatutako plan polita. Aurten, denera, 16 talde hurbildu ziren Ubitarte futbol

zelaira. Euskaldunako jokalariez gain, hainbat klub gonbidatu zituzten: Mundarro, Touring, Hernani, Beti Ona, Billabona, Vasconia, Tolosa eta Urnieta Kirol Elkarteak. Emaitzaz harago, kiroltasuna nagusitu zen.



Irabazleen poza, kopa jaso berritan. Huiziren alargun Ana Sanzek eta Andoni Alvarez alkateak parte hartu zuten sari-banaketan. AIURRI



Euskaldunakoen jaurtiketa, Urnietaren atera. AIURRI

Kopak utzitako irudi ikusgarriak



Billabonako taldekideak, umoretsu, ekaitzalditik babestuz. AIURRI



Emozio handiko uneak bizi izan ziren Ubitarten. AIURRI



Zaletu ugari elkartu zen Ubitarten, egun osoan. AIURRI



UKE eta Tolosa taldeen arteko partida. AIURRI

Urnietarren partaidetza Ubitarten



UKEko jokalaria, maskotarekin. AIURRI



UKEko eta Tolosa CFko jokalarien arteko agurra. AIURRI

Agurraren lezioa

Zelaian erakutsitako finezia eta dotorezia berarekin agur esan dio profesional mailako ibilbideari Jon Gaztañaga Arrospide andoaindarrak. Realeko harrobian hazi eta lehen taldean debuta egin ostean, hainbat klubetan aritu da. Aro hori amaitzeaz zaio

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Real Sociedad taldean egin zuen debuta profesional mailan, 2013an. Geroztik, nazioarteko eta Euskal Herriko hainbat taldetan ibili ostean, futboleko egindako ibilbideari amaiera emango diola iragarri du andoaindarrak. Apirilaren 1ean egin zuen iragarpena.

"Futbol maitea, agur esateko unea iritsi da!"

JON GAZTAÑAGA ARROSPIDE

"Agur esaten dizut inongo minik gabe eta aurpegian irribarre batekin. Nire poz eta energia-iturrietako bat izan zara betidanik eta etxean esan ohi zidaten moduan, baloi bat hanketan nuelarik jaio nintzen. Eta badaikit, azken agurra botak jantzita egingo dudala, ez baitzait inoiz gustatu "colgar las botas" topikoa, uste dudalako futbola benetan maite dugunok, betirako botak soinean emango ditugulako.

Mila esker, eman dizkidazun bizitzako lezio guztiengatik. Ibilbide luze eta polit honengatik. Pribilegiatu bat kontsideratzen naiz, pertsonal eta profesionalki futbolari izateagatik. Bidai ikaragarri bat izan da niretzako eta nire familiarentzako eta beti egongo gara eskertuak eman diguzun guztiengatik.

Nire ibilbide profesionalan eduki ditudan talde guztiak eskertu nahi ditut, lehenengotik gaur arte: Real Sociedad, Ponferradina, Numancia, Nastic de Tarragona, AEL Limassol, Vitorul Constanta, Cultural Leonesa, North East United, Karmiotissa, Barakaldo eta Beasain. Aipamen berezi bat egin nahi nioke, batez ere, Realari. 11 urtetatik 27 arte, formatzeagatik leku onenean. Zubietan, ezagututako entrenatzaile eta taldekide guztiei. Urte guztietan emandako formakuntza futbolistiko eta pertsonalarengatik; eta ezinbestekoak diren balioak erakusteagatik: Lana, esfortzua, disziplina, errespetua (taldekide, arerio eta epailekiko), umilta-



Gaztañaga. BARAKALDO FC

suna eta resiliencia. Nola ez, nire bizitzako ametsa betetzeagatik 2013/08/17an. Haurtzarotik hainbeste maite nuen kamisetarekin lehen mailan debutatu nuen egunean.

Beste alde batetik, nire ibilbidean eduki ditudan entrenatzaile guztiei. Ni irakasteko jarri dituzuen gogo eta maitasunagatik. Eskola kiroletik hasitakoak, azken arte. Zuengatik izan naiz futbolari, erakutsitako balore eta lezioak altxor bat izan dira niretzako. Eta nork daki zuengatik ikasitako guztia praktikan jartzen dudan aurrean jarriko diren erronka berrietan.

Zorionekoa dut nire burua, futbolari esker beste kultura, ohitura, nazio eta hizkuntzak ezagutzeagatik. Bidean oztopo

asko egon dira baina beti pentsatu dut "bidean aurkitzen diren harriak, zure helmugarako pausak direla".

Agur hau ezin dut bukatu nire ibilbidean lagundu didaten pertsona orori, momentu on eta txarretan egon diren horiei. Pertsona asko etortzen zaizkit burura, baina bereziki nire guraso eta anaia Aitorri eta nire aitona-amonei.

Ezin ditut ahaztu nirekin egon diren lagun eta taldeetako lagile desberdinei. Eta nola ez, taldekide izateagatik lagun izatera bihurtu diren horiei. Eta baita ere, zaletuei, zuen hauspo eta pasio gabe hau ez zen hain polita izango.

Azkenik, ezin dut ahaztu nire abentura guztietan lagundu didan pertsonari, nire emazte Tamarari. Eta bidean gehitu diren bi altxorrei, Markel eta Oier. Eskerrik asko, munduko edozein txokoetara laguntzeagatik eta bizitza errazteagatik. Zuen laguntza gabe hau ez nuen lortuko. Tamara zurekin ahal dudana familia onena lortu dut eta pribilegiatu bat kontsideratzen naiz zu nire bizitzaren parte izateagatik. Zu gabe hau ez zen posible izango, eskerrik asko beste behin ere!! Eskerrik asko futbola zorionsu egiteagatik, eta gogoratu *garaipena gero eta zailagoa denean, irabazteko zoriontasuna gero eta haundiagoa da. You'll never walk alone!*"

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Huizi memorialaren argazki-bilduma bikoitza

Euskaldunako eta UKEko argazkiak.
FUTBOLA

www.aiurri.eus



andoaINDARRA
euskaraz



Villa de Agreda XX. Eskubaloi txapelketa irabazi dute infantil mailako mutilek. Pozez gainezka ospatu zuten garaipena. LEIZARAN

Agredako txapelketa irabazita itzuli ziren

Villa de Agreda XX. Eskubaloi txapelketa tradizio handikoa da eskubaloian eta, aurten, Leizaran Eskubaloiko infantil mutilen taldeak sekulako erakustaldia eman du: partida guztiak irabazi ostean txapelketa irabazi zuten. Pozarren ospatu zuten garaipena mutilek

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo klubeko sei talde hurbildu ziren Soriako txapelketa ezagunera. Duen dimensioaren adierazgarri dira partaidetza datuak: Soria, Aragoi, Kantabria, Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa eta Austriatik etortitako 36 taldek eta 650 jokalarik parte hartu dute aurten. Andoaindik infantil, kadete eta jubenil mailatako bina talde joan ziren, 100 jokalarik inguru. Eta haiei gehitu behar zaie lantalde tekniko eta jokalarien etxeokak. Txapelketak iraun duen hiru egunetan Agreda, Olvega (Soria) eta Tarazonako (Zaragoza) pistetan 72 eskubaloi partida jokatu dira.

Infantil mailako mutilen garaipenaz gain, jubenil mailako mutilen 2.postua, infantil nesken

3. postua, kadete mailako nesken 5. postua, jubenil mailako nesken 6. postua eta kadete mailako



Julen Zubeldia atezaina jokalaririk onena izendatu zuten. LEIZARAN

mutilen 7. postua azpimarratu behar dira. Infantil mailako garaileen kasuan, klubak mutikoen ibilbidea nabarmendu du: "bi urte eskasean taldeak hazkuntza nabarmena erakutsi du: talentua, esfortzua eta talde espiritua bikain uztartu dituzte".

Leizaran Eskubaloi Klubaren balorazioa

"Emaitzetatik harago, klubak oso balorazio positiboa egin du Aste Santuko txapelketan taldeek izan duten parte-hartzearekin. Izan ere, horrelako lehiaketek kirol eta prestakuntza-proiektua sendotzen laguntzen dute, eta, aldi berean, bizikidetzaren sustatzen dute, bai jokalarien eta klubeko talde teknikarien artean, bai beste leku batzuetako taldeen artean".



Jubenil mailako neskek, kopa irabazi berriren. LEIZARAN

Etxekoen aurrean altxa zuten kopa

Leizaran eskubaloi taldearen garapena ikusgarria izan da azken urteotan. Euskal Ligan talde bat baino gehiago jokatzeko ari da eta lan onaren ondorio izan ohi da. Lehiaketa zailak dira eta eskarmentua hartzea ezinbestekoa da. Horretarako, haur eta gazte mailatik hasi behar da lanketa egiten eta, tarteka, gainera, albiste pozgarriak iristen dira. Albiste pozgarriak iturri izan da, esaterako, Leizaran BrikoGoros jubenil mailako nesken taldea. Federazio txapelketaren finala irabazi du, berriki, Ordizia Leizea Taberna OETren aurkako partidaren (36-35). Azken penaltian erabaki zen, gainera, Allurralde kiroldegian jokatu zen partida.

Klubetik bidalitako oharraren arabera, emozio handiko finala izan zen: "Lehen zatian zehar oso ondo aritu ziren etxeokak eta 8 goleko abantaila eroso izatera iritsi ziren. Gerora, gauzak zertxobait estutu ziren. Atsedendira markagailuan errenta txikiagoa zen (15-12). Bigarren zatian, lehenbizikoaren antzera, Leizaranek abantaila erosoak lortu zituen, 6 goleko errentaraino iritsiz. Urduritasuna eta nekea agertu ziren orduan eta Ordiziak, gaitzeko ezer ez zuela ikusita, errenta txikitzea lortu zuen.

Partida amaizten ari zen: 28-28 markagailuan, eta Leizaranek gola sartu zuen partida amaierako txirrina jotzen ari zen une berean. Epaileek, ordea, gola baliogabetu egin zuten. Horrenbestez, penaltien txanda iritsi zen. Talde bakoitzak bosna jaurti zituen, eta talde bakoitzak bakarra huts egin zuen. Berdinketa hausten ez zenez, baten batek kale egin arte segi zuten penaltiak jaurtitzeko. Zortzigarren iritsi zen amaiera! Leizaranek jaurtitako hirurak sartu zituen eta Ordiziak, berriz, azkena huts egin zuen. Huts egin baino gehiago, Leizarango atezainak geldiketa ona egin zuen. Azkenean, asko sufritu ondoren, garaipenak zapo gozoagoa izan zuen". Merezitako saria lortu zuen Leizaran BrikoGoros jubenil mailako nesken taldea.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



Denboraldi hasierako argazkia atera ohi du Andoaingo Txirrindulari Eskolak, Goikoplazan. Argazkian, errepidean ariko diren lasterkari gehien-gehienak. Argazki saioa, ikusgai bidez Aiurriren web orrian. ANDOAINGO

Denboraldi berria errepidean

Txirrindulari kimu berriak prestatzen jarraituko du Andoaingo Txirrindulari Eskolak. 2026an benjamin mailako 4 txirrindulari, alebin mailako 10, infantil mailako 3 eta kadete mailako 10 ariko dira bertako elastikoa jantzita. Guztira, 27 neska-mutil

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Formakuntza lan bikaina egiten darrai Andoaingo Txirrindulari Eskolak, urtea joan eta urtea etorri. 2026ko udaberria iritsita, martxan da berriro errepideko denboraldia. Aurten emakumezkoen talderik gabe abiatu da partaideak beste egitura handiagoetara joan direlako. Ixiar Alkain, Izaro Etxarri, Irati Aranguren, Izaro Zuriarrain... Ez dute berehalakoan ahaztuko Andoaingo Txirrindulari Eskolan jasotako formakuntza.

Aurrera begira jarrita, kimu berriak prestatzen jarraituko dute Barberenak, Mujikak, Amu-

txastegik, Zuriarrainek eta gainerako taldekideek. Guztira, hogeita zazpi neska-mutil izango dira aurten Andoaingo elastikoa jantziko dutenak.

Benjaminak

Xuar Otamendi, Martin López, Aratz Korta eta Haimar Oliva Zuzendariak: Jose Luis Barberena eta Jose Sanchez.

Alebinak

Nirvana Ambrona, Aratz Torres, Danel Rodriguez, Aaron Abreu, Eder Larrañaga, Aratz Oliva, Iker Flores, Aiert Zelaia, Bittor Zuloaga eta Harri Otaegi. Zu-

zendariak: Aitzol Zuriarrain, Patxi Altuna eta Jon Mikel Mujika.

Infantilak

Liher Labaka, Xan Lujanbio eta Unax Urizar Zuzendariak: Pedro de Godos eta Jon Mikel Mujika.

Kadeteak


Amets Arruti, Lexar Fernandez, Ugaitz Tejeria, Xabat Martin, Unax Guisado, Dario Gomez, Urko Zelaia, Liher Albizu, Aner Barrenetxea eta Beñat Izeta. Zuzendariak: Unai Galarza, Peru Sarasola, Xemark Arteaga eta Luis Beneitez



Emakumezko taldea, atxiboko irudian. ANDOAINGO

Historia egin zuen taldea

Urte oparoak egin ostean, emakumezkoen taldeko kideek beste taldeetara egin dute jauzi. Eskertza adierazi die Andoaingo Txirrindulari Eskolak: "eskerrak eman nahi dizkizuegu egin dezuen lanagatik. Zorte on, zuen ibilbide berrian".



Martixpe eta Barrenetxea IV bikotea. ORIAMENDI

Finalaurrekoetara iritsi da Berria erremonte txapelketa

Larunbat honetan jokatu dira bi partida, 16:30etan hasita, Galarretan

Erredakzioa URNIETA

Azken jardunaldien ostean, Berria erremonte txapelketako lau bikoteak zehaztu dira. Larunbat honetan elkarren aurka ariko dira, bi partida ezberdinetan. Batetik, indarrak neurtuko dituzte Ezkurra II-Goikoetxea VI eta Martixpe-Barrenetxea IV bikoteek. Bestetik, finalaren bila abiatuko dira Arluziaga-Azpiroz eta Seguroa-Aldabe bikoteak. Galarretan jokatu dira bi partidak, 16:30etan hasita, larunbat honetan.

Aste Santuko jardunaldian, apirilaren 4an, Ezkurra II-Goikoetxea VI eta Arluziaga-Azpiroz bikoteek lortu zuten sailkapena. Martixpe-Barrenetxea IV eta Seguroa-Aldabe bikoteek, berriz, aurreko larunbatean ziurtatu zuten pasea.

Lehenengo mailako eta bigarren mailako erremontariak elkarren artean ari dira Berria

txapelketan. Martxoan ekin zioten ligaxkari eta finala apirilaren 25ean jokatu da, 16:30etan hasita.

Imanol Ansak ez du txapelketan parte hartu

Erremontarien zerrendan ikusita, Ansa urnietarrak ez du aurtengo txapelketan parte hartu. Eta horrek aukerak asko zabaldu ditu, Oriamendiren arabera: "Ez dago faborito argirik eta ahalik eta bikote orekatuenak osatzen saiatu da Oriamendi2010 enpresa. Bikote batzuetan izar nagusi bat dago eta beste batzuetan bi pilotariak dira maila altukoak. Ikusi behar da nola erantzuten duten, ez baita ohikoa izaten horrelako konposizioa kantxa gainean ikustea".

Apirilaren 18ko finalaurrekoak eta 25eko finala partida bakarra jokatu dira.



Markel, lortutako sariarekin. OSTADAR

Markel Uzquiano, Euskadiko txapeldun-orde

Kirol jarduera paralinpikoa da boccia eta, maiatzean, estatu mailakoan ariko da andoaindar gaztea

Erredakzioa ANDOAIN

Ostadar Inklusioa taldeko kideak balentria lortu du boccia kirol jardueran. Emaizta horri esker datorren maiatzaren 16an estatu mailako txapelketan parte hartzeko sailkatu da. Boccia kirol jarduera paralinpikoa da eta bistakoa da ibilbidea egiten ari dela Markel Uzquiano Lopez de Guereñu andoaindarra. Boccia jaurtiketa eta zehaztasuneko kirola da eta xedea honako hau da: jack izeneko bola zuria dago eta harengandik ahalik eta gertuen utzi behar da jaurtitako pilota. Garun-paralisia edo beste desgaitasun fisiko batzuk dituztenek jokatzen dute.



Euskalduna taldea, artxiboko irudian. AIURRI

Ohorezko erregional mailari eusteko borroka bizia

Euskaldunak, estrainekoz, bi garaipen kateatu ditu denboraldia amaitzeko sei jardunaldiren faltan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aste Santuko oporraldiaren atariko jardunaldian, mezu argia luzatu zien Euskaldunak gainetarako aurkariei: Ohorezko Erregional mailari eutsi nahi dio eta bertan jarraitzeko borrokari gogor ekingo dio. Ubitarte zelaian 2-1 irabazi zion Euskaldunak Deusturi. Estrainekoz, gainera, bi garaipen kateatu ditu jarraian. Garrantzi handiko sei puntu dira.

SAILKAPENA, 28. JARDUNALDIA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

1	Real Union B	61
2	Anaitasuna	59
3	Oiartzun	53
11	Beti Gazte	33
12	Orioko	30
13	Amaikak Bat	27
15	Euskalduna	26
16	Mutriku	24
17	Hernani	23
18	Deustu	20

AZKEN SEI JARDUNALDIAK

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

29	Urola-Euskalduna	Api.19
30	Euskalduna-Mondragon	Api.26
31	Euskalduna-Real Union B	Mai.03
32	Amaikak Bat-Euskalduna	Mai.10
33	Euskalduna-Anaitasuna	Mai.17
34	Orioko-Euskalduna	Mai.24

Denboraldia amaitzeko 6 jardunaldi falta badira ere, azken partidak finalaren parekoak izaten ari dira Euskaldunarentzat. Azkenekoan, adibidez, parean zuten Deustu, sailkapena ixten duen taldea. Irabazi beharra zegoen mailari eusten jarraitzeko. Eta hala izan zen. Hiru puntuak etxean geratu eta, aurreko hiru-rez gain, garrantzi handiko 6 puntu bereganatu dituzte. Emozioz beteriko asteak datoz: Orioko, Amaikak Bat, Euskalduna, Mutriku, Hernani eta Deustu... sei talde horien arteko ligaxka zirrargarria izango da.

Paris-Roubaix

Oraina eta etorkizuna duten bi txirrindulari izan dira Paris-Roubaix ezagunean. Irati Arangurenk honakoa adierazi zuen, sare sozialetan: "18 urte, 20 harbide, infernu sentimendua, zaleen oihuak... eta nere lehenengo Paris-Roubaix, ahaztezina!". Eñaut Urkaregik, berriz, 23 urte azpikoan parte hartu zuen: "gogorra bezain polita, bizitakoa. Eta, nola ez, emozionatuta etxekoan aurretik pasatukoan. Eskerrik asko ekipo".



Eñaut Urkaregi. INSTAGRAM



Irati Aranguren. INSTAGRAM

Andoain, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan

Datorren asteartean, hilak 21, 2026ko Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa aurkeztuko dute. 24 herrik eman du izena eskuzko lehian (iaz baino 3 gehiago), 10 ariko dira larruzko paletaz eta pala motzez (4 gehiago aurtan) eta 18 gomazko paletaz (4 gehiago). Txapelketan partaidetza finkoa duen udalerrietakoa da Andoain eta aurtengoan ere

hiru kirol jardueretan parte hartuko du. Rural Kutxak eta Aramendia pasteleriak babestuko dute, beste behin, Herriartekoa. Buruzko burukoak erabakitzeko zozketa egingo dute eta txapelketari maiatzaren lehen asteburuan ekingo diote, eskuz eta gomazko paletaz. Maiatzaren 10ekoan, berriz, larruzko paleta eta pala motza abiatuko da. Gipuzkoapilota.eus webgunean, Herriartekoa atalean, jarraitu ahal izango dira txapelketaren nondik norako guztiak.

Mendia ardatz duen hitzordu bikoitza

Gipuzkoako Mendizale Federazioak bi ekitaldi antolatu ditu hilabete honetarako: "Mendia" antzezlana, hilaren 22an; eta, solasaldia, hilaren 26an, Uxue Loizu aktorearen eta Mikele Urroz mendizalearen partaidetzarekin

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Mendizale Federazioak hitzordu bikoitza iragarri du. Zaletasun handia da Euskal Herrian eta alor hori antzerkian eraman du Mikele Urroz sortzaileak.

"Mendia" antzezlana Apirilak 22. 19:00, Bastero.

Talka baten inguruko eta mendiarekiko maitasunari buruzko bakarrizketa da "Mendia" antzezlana. Mendiari uko egin zion alpinista baten istorioa kontatzen du Mikele Urroz zuzendari eta aktoreak, senide baten errausak botatzeko mendira itzuli behar duen alpinista batena. Sarreraren prezioa lau eurokoa da.

Mahai-ingurua Apirilak 26. 18:00, Urigain

Uxue Loizu eta Mikele Urroz izango dira solasaldiko protagonistak. Mikele "Mendia" antzezlanean sortzaile eta protagonista da, eta antzezlanean ikerketaz, horren irudipenez eta oholtzara eramateko zailtasunez jardungo da. Uxuek, aldiz, bere espedizioez hitz egingo du, zailtasunez, talde lanaren garrantziaz, eta espedizio horien hedapen-lanaz. Sarrera doakoa izango da.



"Mendia" antzezlanean irudia. MENDIA

Uxue Loizu, Amaia Agirreren laguna

Mendizalea Andoainera hurbilduko da. Hura, Amaia Agirre urnietarrarekin batera, FEDME Espainiako Mendi Federazioko Emakumezkoen Alpinismo Taldeko kirolaria izan zen. "Abriendo camino" dokumentalean emakumezkoen alpinismo taldeko kirolari hainbatek hartu zuten parte. Uxue Loizuk dokumental hartan urnietarra izan zuen hizpide: "Amaia gure zaindaria zen. Asko zaintzen gintuen. Medikua zen, eta beti bestean egoeraz arduratzen zen. Faltan botatzen dugu, asko". Mendian han eta hemen ibiltzea euren bizimodua dela defendatu ohi du Loizuk, "afizioa baino gehiago bizitzeko modu bat. Emakume talde bat osatu ahal izatea kristoren esperientzia izan da. Suerte latza, gurea".



Edizio berria antolatu du Euskaldunak. AIURRI

Andoaingo Ibilaldi Neurtua, igande honetan

10, 21 eta 42 kilometroko ibilbideak egokitu ditu Euskalduna Mendigoizale Taldeak

Xabier Lasa ANDOAIN

Aurreko ostiralean (apirilak 12) amaitu zen izena emateko epea, Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuituak webgunean. Igandean hiru ibilbide izango dira aukeran: familia girokoa, motza eta luzea.

Familia-girokoa

Ibilaldian parte hartzeko nahikoa da egunean bertan izena ematea. Goizeko 09:00tan abiatuko dira Ondarreta Herri Eskolatik. Andoain eta Adunako lursailetan barrena ibiliko dira, Belkoain gainetik (491 m.) igaroz. 10 kilometroko luzerakoa, 400 metroko desnibela du.

Ibilaldi motza

21 kilometroko luzerakoa, 99 metroko desnibelarekin, honako lekuetatik igaroko da: Andoain, Zarateko Benta, Belkoain (491 m.) eta Andoain.

Ibilbide luzea

Andoaindik abiatu eta Alkizara iritsiko da; handik, Ernioiko (1.062 m.) bidea hartu eta Zelatun eta Gazume (997 m.) igaro ostean, Zarateko Benta eta Belkoain (491 m.) barrena igaroko dira, Andoainera iristeko. 42 kilometroko luzerakoa, 2.000 metroko desnibela du guztira.

Boluntarioen premia

Boluntario askoren laguntzari esker egiten da Andoaingo Ibilaldi Neurtua. Aurreko asteetan antolatzaileek deialdi berezia egin dute, ezinbestekoak baitira: "Boluntarioak behar ditugu hau guztia ahalik eta hobekien ateratzen laguntzeko. Animatzen zaretenak jarri harremanetan telefonoz, mailaz edo whatsapp-pez". Kale Nagusian dauka egoitza Euskaldunak: 688 684 028, whatsapp; euskaldunamt@yahoo.es, e-posta.

Urnietako eskubaloia, kopa noiz hasiko zain

Infantil mailako Urnieta Sardon taldea bikain aritu da Federazio txapelketan

Erredakzioa URNIETA

Federazio txapelketan bikain aritu dira Urnieta Sardon infantil mailako neskek. Lau garaietan lortu diuzte, azkena, Aiala Cren aurka (22-30). Txapelketa honetan lautik lau ga-

raipen eskuratu dituzte, ligan eurak baino hobeak izan diren aurkariak gailenduz. Gipuzkoako Kopa izango da hurrengo erronka eta asteotako maila ona ematea izango da helburu nagusia.

Urnietako Artola Harategiak ezin izan zuen Lurraldeko 1. mailako azken partida irabazi. Urnietan galdu zuten (26-27) Arrasate E.B taldearen aurka. Dena esatera, aurkariarentzat hil ala bizikoa zen partida: mailari eusteko irabazi behar zuten. Gorritxoek bederatzigarren postuan amaitu dute denboraldi irregularra, 18 punturekin. Behin liga amaituta, Gipuzkoako Kopa prestatzeari ekingo diote. Aste Santuko oporrak igarota abiatuko da lehiaketa berria.



Urnietako Sardon taldea. UKE

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

iA



"Orratz-begia" erakusketa

1936ko kolpe militarren ondorioz, erbesterako bidea hartu behar izan zuten Gipuzkoako haurren gaineko "Orratz-begia" erakusketa zabalik dago Bastero Kulturgunean, datorren apirilaren 30era bitarte

Xabier Lasa ANDOAIN

Gertaera historiko hartako argazkiak, idatziak eta lekukotzak aurki daitezke informazio-panel, bideo eta objetuetan. Erakusketa Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatu du eta irekieran erakusketan protagonista diren hainbat lagun eta ingurukoak izan ziren. Horien guztien artean aipatzekoa da, bereziki, ekainean 98 urte beteko dituen Emilio Truchuelo andoaindarraren presentzia. Izan ere, protagonista bilakatu baitzen argazkilari ohia; berak eman zion akabera hizlarien tarteari; zenbait zertzelada eman zituen Frantziako egonaldiaren gainean. Bere aurretik mintzatu ziren hizlari guztiek ere, oroimen historikoren premia nabarmendu zuten. Marta Lasa Kultura zinegotziak aurkeztu zuen ekitaldia, eta hainbat ordezkari hartu zuten hitza: Andoni Alvarez alkateak, Marta Trutxuelo Udal Artxiboko arduradunak, Intxorta 1937 Kultur Elkarteak Josu Chuecak eta Julia Mongek, eta, Monica Jato Birminghameko unibertsitateko irakasleak.

Andoaingo haurren presentzia

Gipuzkoako milaka haurrek jasane behar izan zuten bzipenen gaineko informazioa eta gogoe-tak ditu oinarri erakusketarako, eta eginkizun horri helduta,



Erakusketaren irekiera Bastero Kulturgunean. AIURRI

tarte berezia hartzen dute Andoaingo haurrek. Hain zuzen, haur horietako zenbaiten irudiak oihal erraldoietan agertzen zaizkio Basteroko erakusketa gelara hurbiltzen den bisitariari. Honako hauek dira: Bixente Huizi, Emilio Truchuelo, Barandiaran anaiak (Joseba, Juan Batista, Bittor eta Dabid), Ugalde Orradre familiako zenbait kide (Peio aita eta Martin eta Joseba semeak), Conchi eta Manoli Diez de Ure ahizpak, eta, Nati, Rosario eta Basilia Martinez Rello ahizpak. Andoaingo haurren testigantzak jasotzen dituen bideo berezia ere ikusgai dago.



Emilio Truchuelo. AIURRI



Lehen entsegua egin zuten Aste Santuaren aurretik. EGAPE

Urnieta Erromerian jaialdian murgiltzeko deia

"Ez da beharrezkoa pieza guztiak dantzatzea. Goazen guztiok elkarrekin ospatzera!", diote sustatzaileek

Erredakzioa URNIETA

Egape Dantza Taldea Urnieta Erromerian jaialdiaren XX. urteurrenean murgilduta dago. Dantza-sorta prestatzeko entseguen egitaraua prestatu dute. Honatx, datozen asteetako plana:

Apirila

- Apirilak 14, asteartea. 19:00-21:00 Sarobe.

- Apirilak 25, larunbata. 10:00-12:00 Ikastola.
- Apirilak 28, asteartea. 19:00-21:00 Ikastola.

Maiatza

- Maiatzak 9, larunbata. 10:00-12:00 Ikastola.
- Maiatzak 23, larunbata. Urnieta Erromerian jaialdia egun osoko ospakizuna izango da.

Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketa

Urnietako Udalak martxan jarri du 2026ko Sanmielak iragartzeko kartel lehiaketa. Lanak datorren maiatzaren 29ra arte aurkezteko aukera izango da. Jai Batzordeak hautatuko du kartel onena deritzona eta irabazleak 500 euroko saria jasoko du. Lehiaketaren oinarriak Urnieta.eus webgunean kontsultatu daitezke.

Sanjuanetako txupinazoa botatzeko hautagaiak

Andoaingo San Juan jaien hasierako txupinazoa botatzeko proposamena aurkezteko epea zabaldu du Andoaingo Udalak: "Proposamenak apirilaren 13tik 24ra bitartean aurkeztuko dira Basteron, Ataria-n edo Ambrosia Olabide zentroan, edo inprimakia beteko da Andoaingo Udalen www.andoain.eus webgunean".

"Aitatxo", Saroben eta Basteron ikusgai

"Aitatxo" dokumentalak seme/alaba baten galeraren dolua azaltzen du aitaren begiradatik. Apirilean Urnietan ikusgai izango da eta, maiatzean, Andoainen. Bi saioak Super H elkartearen eskutik antolatu dira

Erredakzioa URNIETA

Arteman etxearen ekoizpen berriena da eta seme-alabaren bat galdu duten lau aiten testigantza bitartez, dokumental honek aiten sufrimendua eta dolu eskubidea plazaratzen ditu. Bakoitzak egoera honi nola aurre egin dion azalduko da dokumentalean. Gizarteak duen genero begirada apurtuz. Ama gutxietsi gabe aitei hitza emanez horrelako egoeren aurrean, esperantza mezu bat zabalduz.

Super Hren ekimenez, hainbat udalerritan

Dokumentala ikusgai izango da hurrengo asteetan:

- Urnieta. Sarobe. Apirilak 17, ostirala. 18:30.
- Andoain. Bastero Kulturgunea. Maiatzak 13, asteazkena.

"Lagunekin hustu gara asko"

Igor Alejo dokumentaleko protagonistakoa da. 2021eko abuztuaren 11n hil zen Laia Alejo Arruti hamar urteko neskatu billabonatarren aita da. Minbiziaz hil zen eta bere esperientziaren berri eman du dokumentalean. Berriki, Aiurri hamaboskarian luze eta zabal jardun zuen dokumentalaz eta bere esperientziak. Nola egin aurre horrelako gertakari go-



"Aitatxo" dokumentalaren making offeko irudia. ARTEMAN

gorari? Hona, Alejoren etxeko esperientzia: "Lagunekin hustu gara asko. Aloña emaztea eta biok asko hitz egitekoak gara eta lagunekin asko aritu gara Laiatz eta gertatutako guztiaz. Gure momentuak ere izan ditugu, noski. Nik, esaterako, lantokitik atera eta autoan sartzean, askotan egiten nuen negar lehen hilabetetan. Edozein abestik, egoerak... Laia gogorazten zidaten eta negar egiten nuen. Lehen bi hilabetetan eguneroko joaten nintzen hilerrira. Negar saioa egin, lasaitu, eta

semeengana joaten nintzen, berri ere egunerokotasunean murgiltzera. Laiaren omenezko ekitaldietara joateak, behar dituzun negar saio horiek egiteak... horrek guztiak asko lagundu digu egunerokotasunari aurre egiteko garaian. Lagunekin mendira joan, beste errealitate batzuetan murgildu, semeen egunerokotasuna bizi, asko hitz egin..., horrela lortu dugu aurrera egitea. Ez dugu ezer ezkutatzeko; tokatu zaigun zerbait izan da, eta aurrera egin behar dugu".



Jon Garmendia, eskuartearen liburua duela. ELKAR

"Ulhaintsaren negarra" liburuaren aurkezpena, Lekaion

Aurkezpena egingo du sorterrian Jon Garmendia urnietarrak, datorren apirilaren 23an

Erredakzioa URNIETA

Elkarren eskutik argitara eman zuen urnietarrak "Ulhaintsaren negarra" liburu. Urnietan egingo du aurkezpena, datorren apirilaren 23an, Lekaio kultur etxean. Iluntzeko 19:00tan hasiko da ekitaldia.

Jon Garmendiak luze eta zabal xehetu zuen liburu, elkarrizketa sakonean, otsaileko azken Aiurri astekarian. Bere ibilbideari lotuta dago erabat: "urruntasuna, distantzia, bakardadea, samina, etxemina, jendemina, baita poza ere. Gazte garaiak, baserrikoak, konpromisoak hartu nituen garaiok... erbestez eta deserriaz mintzatzen gara unibertsean, baina jende askok uzten du bere etxea motibo desberdinengatik, eta hor dago haustura eta min berdin bat".

Hilabete honetan, herrikideek, aurrez aurre izango dute Izarre baserriko semea. Eta alboan

izango ditu, gainera, liburu argitaratzen erabakiorrak izan ziren bi lagun: Garbiñe Larrea, liburu argitaratzeko xaxatzaila, eta Maider Ziaurritz, editorea.

Ziaurritz editoreak honako hitz hauekin deskribatu zuen liburu: "han-hemen idatzitako piezekin osatutako collage moduko bat da, baina ez dira bizitza baten txatal solteak. Elkarren segidan jarrita, historia argi bat kontatzen dute, urte luzeetan bizi izandako gorabeheren kontakizun pertsonal bat harilkatzen dute, eta, aldi berean, historia kolektibo bat ere badira".

Aurkezle ariko da Larrea, zeinak liburuaren argitalpenaren rol garrantzitsua jokatu zuen: "xaxatzen hasi zen honek amaitu du akuiluarekin eragiten. Testua erabat Maiderren eskutik zegoenean, bestelako logistika hau kudeatzen laguntzea egokitu baitzait".

Musika eskaintza oparoa Bastero Kulturgunean

Ekaina bitarteko programazioan hainbat musika emanaldi nabarmendu daitezke

Erredakzioa ANDOAIN

Sara Azurza, Esanezin, Euskal Barrok Ensemble eta Sol Band Gaza musika taldeak igoko dira oholtzara datorren hiruhilekoan. Gainerakoan, 'Lebiton eta gure pertsonaiak' erakusketa maia-

tzear izango da, Andoaingo Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren 30. urteurrena ospatzeko.

Musika proposamenei dago-kionez, ostiral honetan hitzordu bikoitza iragarrita dago: Sara

Azurzak 'Hiri ilunen umeak' izeneko diskoa aurkeztuko du. Eta, gau berean, Esanezin taldeak 'Horretan idazten' lanik berriena.

Datozen kontzertuak: apirilak 26, Euskal Barrok Ensemble eta Udal Musika Eskolako kantu korala taldea; maiatzak 29, Joana Ortega Barrenetxea; ekainak 5, Sol Band Gaza musika-taldea. Azken horretan AMMA Andoain, BDZ Andoain eta Ongi Etorri Eskolara taldeek postu solidarioak jarriko dituzte.



Udal ordezkariek eta teknikariak, programazioaren berri ematen. BASTERO

AGENDA

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ERAKUSKETA

ANDOAIN "Orratz-Begia"

1936ko kolpe militarren ondorioz ebakuatutako haurrak, aztergai.
Bastero Kulturgunea.
Azken eguna: Apirilak 30.

MINTZALAGUNAK

ANDOAIN Ibilbide gidatua

Oroituz-ekin batera, ibilaldi-gidatua:
1936ko gertaerak Andoainen.
17:30, Goikoplaza.
Apirilak 16, osteguna.

MUSIKA

ANDOAIN Bi proposamen

Esanezin eta Sara Azurza.
19:30, Bastero Kulturgunea.
Apirilak 17, ostirala.

ANDOAIN Klarineta

"Klarineta Ensembleen kontzertua"
Udal Musika Eskolaren eskutik.
18:30, Bastero Kulturgunea.
Apirilak 20, astelehena.

DOKUMENTALA

URNIETA "Aitatxo"

Adin txikiko heritza eta dolua.
Super H elkartearen eskutik.
Xehetasunak, 15. orrialdean.
18:30, Sarobe.
Apirilak 17, ostirala.

EKITALDIA

ANDOAIN Omenaldi-ekitaldia

"Frankismoak zapal dutako andoaindarren aldeko omenaldia",
Oroituz elkartearen eskutik.
12:00, Alfaro parkea. Etxeberrieta.
Apirilak 18, larunbata.

ANTZERKIA

URNIETA Bilintz

"Moko", Indalecio Bizkarrondo *Bilintz*
bertsolaria eta poetaren haurtzaroan sakontzen duen antzelana da. Patxo Telleriak zuzenduta.
17:30, Sarobe.
Apirilak 19, igandea.



Telmo Irureta eta Alex Tello, "Animo" filmaren aurkezpen-biran. ZUMAIAKO UDALA

ANDOAIN "Animo", filma eta solasaldia Bastero Kulturgunean

Zine&Hitz zikloaren baitan, Alex Tellok zuzendutako "Animo" dokumentala ikusgai izango da Andoainen. Segidan, solasaldia iragarri dute zuzendariarekin eta Telmo Irureta aktorearekin.
18:30, Bastero Kulturgunea. Apirilak 16, osteguna.

IBILALDIA

ANDOAIN Ibilaldi Neurtua

Familia giroan egiteko irteera laburra,
irteera ertaina eta irteera luzea.
Xehetasunak, 13. orrialdean.
Hiru irteera ezberdin. Goikoplaza.
Apirilak 19, igandea.

SARIKETA

URNIETA Literatur lehiaketa

"Antia" literatur lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. 96 idazlan lehiatzen, haurren mailan. 38. gazte mailakoak.
19:00, Sarobe.
Apirilak 23, osteguna.

AURKEZPENA

URNIETA Liburu-aurkezpena

"Ulhaintsaren negarra" liburuaren aurkezpena. Hiru urnietar elkartuko dira ekitaldian: Jon Garmendia idazlea, Maider Ziaurritz editorea eta Garbiñe Larrea aurkezlea.
19:00, Sarobe.
Apirilak 23, osteguna.

SANTAKRUTZAK

ANDOAIN Erreka jaitsiera

Maiatzaren 1ean erreka jaitsieraren edizio berria iragarri du Eguzkik.
Irteera antolatzeke bilera deitu dute.
19:00, Urigain.
Apirilak 22, asteazkena.

ANDOAIN Herri danborrada

Maiatzaren 1ean aterako dira.
Entseguak betiko tokian dira.
Entseguak: 20:00-21:00.
Apirilak 27 eta 28.

ANDOAIN Peñakoen danborrada


Maiatzaren 2an aterako dira.
Entseguak betiko tokian dira.
Entseguak: 19:00-20:00.
Apirilak 27 eta 28.

DANTZA

URNIETA Urnieta Erromerian

Egape jaialdien XX. urteurrenean murgilduta dago. Entseguak:
Apirilak 25: 10:00-12:00 Ikastola.
Apirilak 28: 19:00-21:00 Ikastola.
Apirilak 25 eta 28.

ZINEMA



ANDOAIN


BASTERO

La familia Beneton +2

Larunbata, 18.
19:30.
Igandea, 19. 17:00,
19:30.
Astelehena, 20.
17:00, 19:30.

Laponia

Lar., 25. 19:30.
Igandea, 26. 19:30.
Astelehena, 27.
17:00, 19:30.
Super Mario Galaxi: La Pelicula
Lar., 25. Ig, 26.
17:00.



SINOPSISIA

La familia Beneton +2

Zuzendaria: Joaquín Mazn. **Aktoreak:** Leo Harlem, Juan Manuel Montilla 'El Langui', Anabel Alonso, Alí Dia, Diego Montejo, Gala Bichir, Pepe Viyuela, Llum Barrera, Iñaki Miramon, Chen Meilin, Enrique Villen, Kamsiyochi Ngene, Maite Perroni, Natti Natasha. **Hizkuntza:** Gaztelaniaz. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 87 m.

Arrakasta errepikatu nahi dute

Beneton familiaren jarraipena (2024). Toni Benetonek (Leo Harlem) bere familia maitagarri eta dibertigarrian dena kontrolpean duela uste duenean, bi haurtxo berrirak etorrerak etxea eta familia osoa hankaz gora jarriko ditu. Arazoak partida bikoitzean hazten dira, baina abenturak ere bai.



Lan-deialdia: Eskola Kirolerako hezitzailea Andoainen

Datorren ikasturterako Andoaingo Ondarreta Herri Eskolako Eskola Kirolerako hezitzaile bat kontratatu nahi du. Betebeharrak honako hauek dira: Eskola kiroleko jarduerak antolatzea eta dinamizatzea. Ikasleen parte-hartzea sustatzea giro hezitzaile eta inklusiboan. Eskakizunak: Kirol arloko goi mailako zikloa -TAFYD (gutxieneko titulazioa). Euskara gaitasuna eta eguneroko jardunean erabiltzeko konpromiso osoa. Baloratuko da: Andoaindarra izatea. Interesa dutenek bidali dezatela beren



curriculum dagokion epean txomin@kirolean.eus helbide elektronikora.